

### 2009: el mercado laboral en crisis

En 2009 cambia la situación del mercado laboral: desciende la población ocupada y aumenta la población parada respecto al año anterior.

### 2009: lan merkatua krisialdian

2009an aldatu egin da lan merkatuaren egoera: biztanleria landuna jaitsi eta langabeak gehiago dira aurreko urtean baino.

#### Euskal AEko lan-eskaintzaren zifrak. 2009/2008

Cifras de oferta de trabajo en la C.A. de Euskadi. 2009/2008

	2008	2009
<b>16 urte eta gehiagoko biztanleria / Población de 16 y más años</b>	1.853.500	<b>1.864.100</b>
<b>Biztanleria aktiboa / Población activa</b>	1.025.700	<b>1.035.600</b>
<b>Biztanleria landuna / Población ocupada</b>	987.100	<b>951.500</b>
<b>Biztanleria langabea / Población parada</b>	38.600	<b>84.200</b>
<b>Biztanleria ez aktiboa / Población inactiva</b>	827.800	<b>828.500</b>
<b>Aktibotasun-tasa / Tasa de actividad</b>	55,3	<b>55,6</b>
<b>Langabezia-tasa / Tasa de paro</b>	3,8	<b>8,1</b>

Iturria/Fuente:EUSTAT

Durante 2009 la cifra media de ocupados en la C. A. de Euskadi ha sido de 951.500 (-3,7%). La población ocupada ha descendido en los tres territorios históricos. En términos relativos destaca el descenso de Bizkaia (-4,7%), seguido por el de Álava (-4,2%) y, por último, el de Gipuzkoa (-3,0%).

2009an, landunen batez besteko kopurua 951.500 (%-3,7) izan zen Euskal AEn. Biztanleria landuna hiru lurralde historikoetan jaitsi da: Bizkaian (%-4,7), Araban (%-4,2), Gipuzkoan (%-3,0).

## La pérdida de empleo afecta a todos los sectores

Se pierde empleo en todos los sectores económicos (CNAE-2009). La industria pierde 24.400 empleos netos, en términos relativos -10,8%; le sigue la construcción que pierde 5.000 empleos (-6,4%); continúa el sector servicios con 3.600 empleos menos (-0,6%) y, por último, el sector primario con 2.800 empleos menos (-30,9%).

Atendiendo a la situación profesional, desciende la ocupación en todos los grupos estudiados: cooperativistas (-11,2%), asalariados (-4,0%), empleadores (-2,8%) y autónomos (-1,2%).

Respecto al género, el colectivo de varones ocupados baja un 5,7%, con 30.200 empleos netos menos, y el de las mujeres se ve menos afectado (-1,3%), con 5.400 empleos netos menos.

## Enplegu-galerak sektore guztiei eragin die


Enplegu-galera sektore ekonomiko guztietan izan da (JESN-2009). Industriak 24.400 enplegu garbi galdu ditu (%-10,8); eraikuntzak 5.000 (%-6,4); zerbitzuek 3.600 (%-0,6) eta lehen sektoreak 2.800 (%-30,9).

Lan-egoerari begiratur, aztertutako talde guztietan jaitsi da landun kopurua: kooperatibistetan (%-11,2); soldatakoetan (%-4,0); enplegatzaileetan (%-2,8); autonomoetan (%-1,2).

Generoaren arabera, gizonezko landunak %5,7 gutxiago dira, 30.200 enplegu garbi gutxiago; emakumezkoen artean eragin negatiboa txikiagoa (%-1,3), 5.400 enplegu garbi gutxiago.

## 16 urtetik gorako biztanleria okupatuaren bilakaera. Euskal Autonomia Erkidegoa 2008-2009. Urteko batez bestekoak. (Milaka)

Evolución de la población de 16 y más años ocupada. C.A. de Euskadi 2008-2009. Promedios anuales. (En miles)



Iturria/Fuente: EUSTAT

## Desciende el número de ocupados con contrato indefinido (-1,3%)


Por otro lado, dentro de los asalariados, el número de los contratados indefinidamente desciende en un 1,3% en este año y el de los contratados temporales desciende un 14,2%. Por ello, la tasa de temporalidad, entendida como la proporción de contratados temporales sobre el total de asalariados, es del 18,6% y resulta 1,8 puntos inferior a la de 2008.

## Mugagabeko kontratadun landunak gutxiago dira (%-1,3)

Bestalde, soldatakoen artean, kontratu mugagabedunak %1,3 jaitsi ziren urte horretan eta aldi baterakoak %14,2 jaitsi. Behin-behinekotasun tasa, alegia behin-behineko landunen proportzioa soldatadunen kopuru osoaz, %18,6 izan da, 2008koa baino 1,8 puntu txikiagoa.

## Soldatakoen kopuru osoaren gaineko aldi baterako kontratatuen proportzioa, sexuaren arabera. 1994-2009. Euskal Autonomia Erkidegoa. Urteko batez besteko (Ehunekotan).

Evolución de la proporción de contratados temporalmente sobre el total de asalariados por sexo 1994-2009. C.A de Euskadi. Promedios anuales (En porcentajes)



En lo que respecta a la proporción de asalariados contratados temporalmente sobre el total de los asalariados por sexo, para los varones es de 16% y para las mujeres -a pesar de haber descendido respecto al año anterior (un punto porcentual)- se encuentra en el 21,6%.

El diferencial de la tasa de temporalidad por sexo aumenta en 1,6 puntos porcentuales con respecto al año anterior: de 4 puntos a 5,6.

### La tasa de paro sube del 3,8% al 8,1%

Junto con la caída de la ocupación en el año 2009 se produce un incremento del número de parados en unos 45.600 respecto a 2008, es decir, se dobla la cifra de parados hasta alcanzar las 84.200 personas. La tasa de paro sube al 8,1%, lo que supone 4,3 puntos porcentuales más que en 2008.

El número de parados aumenta en los tres territorios históricos: en Gipuzkoa (+23.600), en Álava (+11.600) y en Bizkaia (+10.500). En Álava la tasa de paro llega al 9,9% (7,2 puntos más), en Bizkaia al 8,6% (+4,3 puntos porcentuales) y en Gipuzkoa al 6,5% (+3,2 puntos porcentuales), siendo el Territorio con menor tasa de paro en 2009.

### La brecha de la tasa de paro por sexo desciende en 0,6 puntos porcentuales

En 2009 se ha incrementado el número de varones parados en 28.700 y el de las mujeres en 16.900. En términos relativos, el número de varones parados ha subido un 144,2% y el de las mujeres el 90,4%. La tasa de paro masculina asciende al 8,4% y la femenina al 7,8%.

El diferencial de la tasa de paro por sexo desciende en 1,4 puntos porcentuales con respecto al año anterior: de ser desfavorable para las mujeres en 0,8 puntos a serlo para los varones en 0,6.

Behin-behineko kontratua duten soldatakoen sexuaren arabera begiratu gero, gizonezkoen artean %16 da; emakumeen artean, lehengo urtearen aldean ehuneko puntu batez jaitsi bada ere, %21,6an da.

Behin-behinekotasun tasaren sexuaren arabera diferentziala ehuneko 1,6 puntuz handitu zen aurreko urtearen aldean: 4tik 5,6ra.

### Langabezia-tasa %3,8tik %8,1era igo zen

2009an langabeak 45.600 gehiago dira 2008an baino, 84.200 pertsona. Langabezia-tasa %8,1era igo da, hau da, 2008an baino ehuneko 4,3 puntu gehiago.

Langabeak hiru lurralde historikoetan ugaitu ziren: Gipuzkoan (+23.600), Araban (+11.600) eta Bizkaian (+10.500). Araban langabezia-tasa %9,9ra igo da (7,2 puntu gehiago); Bizkaian %8,6ra (ehuneko +4,3 puntu) eta Gipuzkoan %6,5era (ehuneko +3,2 puntu), 2009an langabezia-tasarik txikiena duen herrialdea delarik.

### Langabezia-tasaren sexuaren arabera aldea 0,6 ehuneko-puntuz jaitsi da

2009an 28.700 gizon langabe gehiago izan ditugu, eta 16.900 emakume langabe gehiago. Gizon langabeen kopurua %144,2 hazi da eta emakumeena %90,4. Gizonezkoen langabezia-tasa %8,4an da eta emakumezkoena %7,8an.

Aurreko urtearen aldean, sexuaren arabera langabezia-tasaren aldean ehuneko 1,4 puntuz jaitsi da: 0,8 puntuz emakumeen kontratik 0,6 puntuz gizonen kontrara.

## Aumentan el 32,3% los parados que buscan su primer empleo

Se incrementa el número de parados en todos los grupos de edad estudiados: de 16 a 24 años (+109,7%), grupo que incluye el menor número de parados (13.000 personas), de 25 a 44 años (+120%) y de 45 y más años (119%). La tasa de paro juvenil asciende al 22,9%, 13,1 puntos porcentuales más que la de 2008.

El número de parados que buscan su primer empleo mantiene su tendencia creciente: de 3.100 parados en 2008 se amplía a 4.100 en 2009.


## Lehenengo lanaren bila ari ziren langabeak %32,3z ugaritu ziren

Langabeen kopurua aztertutako adin talde guztietan handitu da: 16 urtetik 24ra (%+109,7), langabe gutxieneko taldea, 13.000 pertsona; 25etik 44ra (%+120); 45 urteko eta gehiagoko taldean (%+119). Gazteen langabezia-tasa %22,9an da, 2008koa baino ehuneko 13,1 puntu gehiago.

Lehenengo lanaren bila ari diren langabetuen kopuruak goranzko joerari eutsi dio; 2008an 3.100 ziren, eta 2009an 4.100.

## 16 urte eta gehiagoko biztanleria langabearen bilakaera. Euskal AE. 2008-2009. Urteko batez bestekoak. (Milakotan)

Evolución de la población de 16 y más años parada. C.A. de Euskadi. 2008-2009. Promedios anuales (En miles)



## La tasa de ocupación femenina resulta todavía inferior a la de la Unión Europea de los 27 pero supera a la media española

Desde un punto de vista comparativo, se producen algunas diferencias entre los indicadores del mercado de trabajo de la C.A. de Euskadi y de la Unión Europea, con los 27 países, en 2009.

La tasa de ocupación vasca para la población de 16 a 64 años resulta ser ligeramente superior a la europea (65,1% y 64,8%, respectivamente). La mayor diferencia se encuentra en la tasa de ocupación masculina (72%), ya que ésta es para la Unión Europea (71%) un punto inferior a la de la C.A. de Euskadi. La tasa de ocupación femenina de la Unión Europea, sin embargo, es seis décimas de punto superior a la de la C.A. de Euskadi (58,7% y 58,1%, respectivamente).

Además, la tasa de ocupación femenina vasca, siendo más baja que la europea, resulta ser mayor (4,6 puntos porcentuales) que el promedio de España.

## Emakumezkoen okupazio-tasa artean ere 27en Europar Batasuneko baina txikiagoa izan zen, baina Espainiako batez bestekoa baino handiagoa

Alderatze-ikuspuntu batetik, badira aldeak 2009ko Euskal AEko lan-merkatuari buruzko adierazleen eta Europar Batasuneko 27 estatuetako adierazleen artean.

16-64 urte bitarteko euskal biztanleriaren okupazio-tasa Europakoa baino handiagoa da (%65,1, %64,8). Alderik handiena gizonezkoen okupazio tasan (%72) da; izan ere, Europar Batasuneko (%71) puntu batez dago azpitik. Europar Batasuneko emakumezkoen okupazio-tasa, aldiz, Euskal AEkoa baino sei puntu hamarren handiagoa da (%58,7 eta %58,1, hurrenez hurren).

Gainera, euskal emakumezkoen okupazio-tasa, Europakoa baino txikiagoa izanik, Espainiako batez bestekoa baino altuagoa da (ehuneko 4,6 puntu).

## La tasa de paro femenino en la C.A. de Euskadi se sitúa por debajo de la del conjunto del Estado y de la Unión Europea

Respecto a las tasas de paro y en comparación con la Unión Europea, la tasa de paro media de los 27 países en 2009 es 0,8 puntos porcentuales superior a la de la C.A. de Euskadi.

La tasa de paro de la C.A. de Euskadi es más baja que la tasa promedio de España, destacando la diferencia con la tasa española de paro femenino (10,6 puntos menos) y siendo la tasa de paro masculino 9,3 puntos inferior.


## Euskal AEko emakumezkoen langabezia-tasa Estatukoaren eta Europar Batasunekoaren azpitik kokatu zen

Langabezia-tasei dagokionez, Europar Batasunekoa, 27ena, 2009an, Euskal AEkoa baino ehuneko 0,8 puntuz gainerik zegoen.

Euskal AEko langabezia-tasa Espainiako batez bestekoa baino baxuagoa da; nabarmentzekoa da emakumezkoen langabezia dagoen alde (10,6 puntu gutxiago); gizonezkoena 9,3 puntu gutxiago da.

## Lan- (16-64 urte bitarte) eta langabezia- (16 urte eta gehiago) tasak 27en Europako Batasunean, Espainian eta Euskal AEn, 2009, (%)

Tasas de ocupación (16 a 64 años) y paro (16 y más años) en la Unión Europea 27, España y C.A. de Euskadi 2009 (En %)



Iturriak/Fuentes:EUROSTAT: LFS; INE: EPA y EUSTAT; BJA/PRA

## La proporción de contratados temporales entre los asalariados de la C.A. de Euskadi (18,6%) sigue siendo superior a la existente en la UE-27

En el campo de la ocupación se sigue produciendo una diferencia notable en cuanto a la estabilidad en el empleo. Según la última Encuesta de Fuerzas de Trabajo (LFS) de Eurostat (tercer trimestre de 2009), en el promedio de los 27 países europeos, algo más de uno de cada 10 asalariados tienen un contrato temporal (13,8%) y, en general, en todos los países esta proporción resulta inferior al 20%, salvo en España (25,9%), Polonia (27,1%) y Portugal (22%).

## Euskal AEko behin-behineko kontratatuen proportzioa (%18,6) oraindik ere 27-EBkoaren gainerik dago

Okupazioaren arloan, oraindik ere alde oso nabarmena dago enpleguaren egonkortasunari dagokionez. Eurostat-en azkeneko Lan Indarren Inkestaren arabera (2009ko hirugarren hiruhilekoan), Europako herrialdeen batez bestekoa, 10 soldatakotik 1ek baino zerbait gehiagok (%13,8) behin-behineko kontratua dute, eta orokorrean, herrialde guztietan proportzio hori %20tik beherakoa da, Espainian (%25,9), Polonian (%27,1) eta Portugalen (%22) izan ezik.

## GLOSARIO

## GLOSATEGIA

**Población activa**

Personas de 16 ó más años que durante la semana de referencia aportan un trabajo para producir bienes y servicios (población ocupada), y las que carecen de empleo en ese momento, lo buscan activamente y están disponibles para incorporarse a él (población parada).

**Población ocupada**

Personas de 16 ó más años que durante la semana de referencia han estado trabajando durante al menos una hora, a cambio de una retribución (salario, jornal, beneficio empresarial, etc.) en dinero o especie o sin retribución como ayuda familiar. También son ocupados quienes teniendo trabajo han estado temporalmente ausentes del mismo por enfermedad, vacaciones, etc.

**Población parada**

Personas de 16 ó más años que durante la semana de referencia no poseen un empleo asalariado o independiente, han buscado uno de forma activa en las últimas cuatro semanas y están disponibles para trabajar en las siguientes dos semanas.

**Población inactiva**

Población que no está ocupada ni parada; incluye a las personas que realizan las tareas del hogar, los que cursan estudios, los jubilados, los pensionistas, los rentistas y los incapacitados.

**Tasa de actividad de un grupo**

Proporción de activos sobre la población de 16 y más años de ese grupo. EUROSTAT calcula las tasas de actividad para la población de 15 y más años.

**Tasa de paro de un grupo**

Proporción de parados de un grupo sobre el total de activos de ese grupo.

*La Encuesta de Población en Relación con la Actividad (PRA) es una operación estadística que viene realizándose por Eustat desde 1985. Tiene por objeto fundamental producir información continua sobre la oferta del Mercado de Trabajo de la C.A. de Euskadi. Trimestralmente da cuenta de la población ocupada, parada e inactiva, así como de sus variaciones y de las principales características sociales de estos colectivos.*

*Los datos de la PRA están sujetos a errores de muestreo derivados de la utilización de una muestra formada por 5.088 familias de la C.A. de Euskadi, a las que se encuesta cada trimestre, formando un panel. Los errores de muestreo de la PRA están en www.eustat.es a disposición de los usuarios interesados. El Coeficiente de Variación de la estimación de la población ocupada es 1,3% y de la población parada es 3,9%. Como consecuencia, los límites del intervalo de confianza son 927.700 y 975.200 para la población ocupada y, 77.700 y 90.700 para la población parada (datos de 2009, a un Nivel de Confianza del 95%).*

**Biztanleria aktiboa**

16 urteko edo gehiagoko biztanleria da, ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko erreferentziako astean lan egiten dutenak (biztanleria landuna); eta momentu honetan lanik ez dutenak, lan bila aktiboki dabiltzanak eta lanerako prest daudenak (biztanleria langabea).

**Biztanleria landuna**

16 urte edo gehiagoko biztanleria da, erreferentziako astean ordubetez gutxienez lan egin dutenak ordainsari baten truke (soldata, jornala, mozkinak e.a.), dirutan edo gauzatan edo ordainsaririk gabe familia laguntza gisa. Landunak dira lana izanda ere denbora batez lanean izan ez direnak gaixotasuna, opporrak eta abar direla-eta.

**Biztanleria langabea**

16 urteko edo gehiagoko biztanleria, erreferentziako astean soldatako lanik edo lan beregainik izan ez, azken lau asteetan aktiboki lan bila ibili eta hurrengo bi asteetan lan egiteko prest dagoena.

**Biztanleria ez-aktiboa**

Landuna edo langabea ez den biztanleria; hor sartzen dira etxeko lanak egiten dituztenak, ikasten ari direnak, erretiratuak, pentsiodunak, errentadunak eta ezgaituak.

**Talde baten aktibotasun-tasa**

Aktiboen kopurua, talde bateko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren aldean. EUROSTATEk 15 urte eta gehiagoko biztanleriarentzako kalkulatu dituzte aktibotasun-tasak.

**Talde baten langabezia-tasa**

Talde bateko langabe-kopurua, talde horretako aktiboen guztizkoaren aldean.

*Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta (BJA), Eustatek 1985etik egiten duen estatistika-eragiketa da. Helburu nagusizat dauka Euskal AEko lan-merkatuaren eskaintzaren gaineko aldiari behingo informazioa eskaintzea. Hiru hilean behin, biztanleria landunaren, langabearen eta ez-aktiboaren berri ematen du, bai eta talde horien gorabehera nagusien eta gizarte-ezaugarrien berri ere.*

*BJAren datuak laginketa-akatsi atxikita daude, Euskal AEko 5.088 familiek osatutako lagin baten erabilpenetik ateratako akatsi, hain zuzen. Familia horiei hiru hilean behin egiten zaie inkesta, panela osatuz. BJAren laginketa-akatsak www.eustat.es helbidean daude, erabiltzaile interesatuen eskuan. Biztanleria landunaren Aldakuntza Koefizientea %1,3 da eta langabearena %3,9. Ondorioz, konfiantza tartearen mugak biztanleria landunarentzat 927.700 eta 975.200 dira, eta 77.700 eta 90.700 langabearentzat (2009ko datuak, %95eko konfiantza-mailarekin).*

**INFORMAZIO-ESKAERA / SOLICITUD DE INFORMACIÓN**

**Galderaren bat egin nahi baduzu edo datu gehiago behar baduzu, hemen aurkituko gaituzu:**

Para cualquier consulta o ampliación de los datos, pueden dirigirse a:  
**EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística)**

Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 01 75 00  
Fax: 945 01 75 01  
e-mail: eustat@eustat.es  
www.eustat.es

Erakunde Autonomiaduna  
Organismo Autónomo del

